


# Gose biziko beldarra

Urriaren  
**3an**  
 eskuragarri



Testua eta irudiak: **Eric Carle**

Itzulpena: Manu Lopez Gaseni

Saila: Amets egiteko liburuak. Gaur egungo klasikoak

Gaiak: Zenbakiak, elikagaiak, asteko egunak, edo egunetik gauera igarotzea, tamainak, beldarretik tximeletarako metamorfosia, natura.

IBIC: YBC (Album irudidunak) / YBGK (Liburu trokeltatuak edo ebakigarriak)

Formatua: Orrialde zulatuak dituen kartoia | 29 x 21 cm. | 32 or.

Salneurria: 16,00 €

ISBN: 978-84-9172-349-3

HIZKUNTZA HAUETAN ERE: GALEGOA, PORTUGESA

ISBN: 978-84-9172-349-3



**Eric Carleren obrarik ospetsuena bueltatu da Kalandrakako katalogora. Hirurogei bat hizkuntzataraz itzuli den eta berrogeita hamar milioitik gora ale saldu dituen nazioarteko klasikotzat jotako obra ezinbestekoa.**

Igande eguzkitsu batean, beldar bat jaio da arrautze batetik. Txikia da, baina gose handia du. Hori dela eta, egunez egun ibiliko ditu liburu honetako orrialdeak, eta haiek zulatuko, bidean aurkitzen duen guztia jabez: frutak, barazkiak eta goxokiren bat edo beste. Halaxe, tximeleta ederra bihurtu arte.


Eguna eta gaua, handia eta txikia, asteko egunak, zenbakiak, elikagaien izenak edo metamorfosiaren prozesu naturala agertzen dira maisutasunez sortutako eta collage teknikaz ilustratutako album honetan, mundu osoko haur irakurle txikienak bidelagun hartuta.

**Eric Carle (1929-2021)**


Estatubatuar hau 70 album baino gehiagoren egilea da. 1967an hasi zen liburuak ilustratzen, urte askotan publizitatearen arloan aritu eta gero. Alemanian, Stuttgart-eko Akademie der Bildenden Künste delako arte-eskolan ikasi zuen. 1952an, Estatu Batuetara bueltatu zen, eta han *The New York Times* egunkariko diseinatzaile grafiko gisa lan egin zuen. Osorik, irudi eta testu, argitaratu zuen lehen liburua 1,2,3, to the Zoo (1968) izan zen; eta haren ondoren, *The Very Hungry Caterpillar* etorri zen. Beste sari batzuen artean, Boloniako Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko Azokaren Saria, Haurrentzako Liburu Saltzaileen Saria eta Amerikako Biblioteken Elkartearena jaso ditu.

<https://eric-carle.com>

Egilearen beste liburuak:




ISBN: 978-84-9172-331-8



ISBN: 978-84-9172-340-0




ISBN: 978-84-9172-338-7



ISBN: 978-84-7681-708-7





PAMIELA  
argitaletxea

Kalandraka  
amets egiteko liburuak®



# Gose biziko beldarra

Ilargiaren argipean,  
arrautza txiki bat zegoen  
hosto baten gainean.



Igande goiz batez, eguzki epela atera,  
eta popl, arrautzatik  
beldar ñimiño  
eta oso gose bat sortu zen.



Eta janari bila hasi zen.



Astelehenean,  
sagar bat  
jan zuen  
alderik alde.  
Baina gose zen  
artean ere.